

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1344

*194/2020 EBAZPENA, otsailaren 11koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, Jose Luis Balentziaga Muñoz jaunari Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Durangoko Lehen Mailako Arretako unitate-buru lanpostuaren eginkizunen esleipena errebokatzeko dena.*

302/2000 Ebazpenaren bidez, Jose Luis Balentziaga Muñoz jauna izendatu zen Durangoko Lehen Mailako Arretako Unitate-Buru Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusiak

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jose Luis Balentziaga Muñoz jaunari Durangoko Lehen Mailako Arretako unitate-buru lanpostuari dagozkion eginkizunak esleitu izana errebokatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ESIan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko martxoaren 1ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakaon, 2020ko otsailaren 11.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentea,  
JON GUAJARDO REMACHA.